


AZKEN BALEA



Duela 2 aste Markelen ama beste egun batean bezala medikura joan zen baina bueltatzerakoan Markelek zerbait arraroa sumatu zuen haren aurpegian. Etxera sartzekoan ez zion begietara begiratu eta triste zegoela zirudien. Gainera "kaixo" ia isil bat baino ez zuen esan eta segituan ohera joan zen. Aitak esan zion uzteko bakean hurrengo egunean hobeto egongo zela baina ez zen hórrela izan.

Markel, 12 urteko mutiko altua eta ilehoria zen, oso alai zegoen beti eta nahiko lotsatia eta burutsua zen. Familian egotea asko gustatzen zitzaion baita lagunekin egotea ere. Aldiz, animaliak ez zitzaizkion batere gustatzen, sekulako beldurra ematen bait zioten. Horregatik ama medikutik gaizki etorri zen egun bertatik Markelek haren alaitasuna galdu zuen.

Egun batean, Markel bere logelan irakurtzen zegoenean aitak deitu zuen atera.

— Aurrera —esan zuen Markelek.

— Kaixo Markel —hasi zen aita—. Gauza bat proposatzera natorkizu.

Markelek burua liburutik altsatu gabe jarraitzen zuen gorrarena egiten aita bere gelatik ateratzeko. Baina ez zen horrela izan eta aitak jarraitu zuen.

— Badakit ez zaizula erresa egiten ari baina egoera hau hobetzeko plan bat proposatzera nator —hori entzutean Markel segituan altsatu zuen burua, hala ere hitz bakar bat esan gabe—. Ama medikuan hilabete batzuk egon behar da eta nik berarekin egonbehar naiz. Beraz, pentsatu dut amonari bisitatxo bat egin ahal diozula Islandian, zehazki Húsavíken. Nik Madrileranaino zurekin joango naiz.

Markelek ez zekien nola erreakzionatu. Alde batetik pozez saltoka hasi nahi zuen hainbeste urte eta gero berriro amona ikusi behar zuelako baina beste aldetik negar egiten hasi nahi zuen amari zerbait larria gertatzen ari zitzaiolako.

— Eta, zer diozu?

— Ba ez dakit. Alde batetik gogo asko ditut berriro amona ikusteko baina beste aldetik... —Markelek, hitzik gabe geratu zen sentitzen zuen tristura adierazteko— oso kezkatua nago amarengatik. Zer gertatzen zaio?

— Ezer larririk, bakarrik... gaixorik dago —esan zuen aitak presaka—. Hoberena ama medikuan uztea eta amonarekin joatea da.

— Baaaale... —esan zuen Markelek aitaren hitzegiteko gogo gutxiak ikusita.

— Orduan ez dago hitzegiterik, prestatu maleta, bihar bertan joango gara. Hurrengo egunean, Markeli ahots leun bat esnatu zion, bere aita zen eta ohean eserita zegoen belarretik-belarrira zihoan irrifar batekin.

— Esnatu, esnatu. Berandu iritsiko gara trenera —esan zion aitak maleta eskuan zuela.

Markelek aitaren presak ikustean ziztu bizian altsatu zen ohetik, jantzi zen eta gosaldu gabe etxetik joan ziren tren geltokira. Iritsi bezain laster trenera igo ziren eta Madrilerantz habiatu zen. Trena Madrileran bidean zihoan bitartean, Markel leihotik begira geratu zen. Aitak egunkaria irakurtzen zuen, edo hala zirudien behintzat, ez baitzuen orrialdea behin ere pasatu.

— Aita —hasi zen Markelek—, zergatik bizi da amona Húsavíken? Ez al dago hotz handiegia han? Eta... nola iritsiko gara?

Aitak egunkaria jaitsi zuen. Begietan nekea nabari zitzaion, baina irribarre behartu bati eutsi zion.

— Amona beti izan da emakume berezia. Han lan egiten du zientzialariek. Eta iristeko... tira, hegazkin bat hartuko dugu haraino.

Markeli bapatean burura etorri zitzaion amonak beti esaten zuela Húsavíken "lurreko biztanle bitxienak" bizi zirela. Gainera animaliek izua ematen zioten, eta amonaren etxeko pinguino, foka eta baleen irudiak baita etorri zitzaizkion burura. Munduko lekurik bakartienera zihoan, amaren berririk gabe eta bere beldur handienekin topo egiteko arriskuarekin.

Madrilgo aireportura iritsi zirenean, megafoniatik entzun zen: "Húsavíkeko hegaldia, atea prest". Aitak gogor heldu zion Markelen eskuari.

— Prest? —galdetu zion.

Markelek baietz esan zuen buruarekin.

Hegaldiz egindako bidaia luze baten ondoren, Markel Húsavíkera iritsi zen. Han amona zegoen zain, elurrez estalitako etxola txiki batean.

— Kaixo amona !!! – ohiukatu zuen markelek pozez beteta. Izan ere ia 4 urte ez zuela amona ikusten.

Etxolara korrika sartu zen Markelek. Amonak baso-esne bero bat zeukan prestatua txokolategiko gaileta batzuekin eta segituan hartu zituen Markelek. Denbora luzez hitzegiten egon eta gero ohera joan ziren, Markelek oso nekatuta zegoelako eginberri zuen bidaia zela eta.

Hurrengo egunak oso aspergarriak eta luzeak egin zitzaizkion markeli, izan ere amonak arraintegira joan behar zen normalean. Hori dela eta, Markelek bakarrik geratzen zen.

Egun batean bakarrik egoteaz nazkatua, amonari iriatik bueltatxo bat ematera joan behar zela esan zion, eta hori egin zuen. Uharteko mapa bat hartu, elurretarako botak jantzi eta ibiltzen hasi zen.

Laku zoragarriak ikusi zituen, baita mendi altu altuak ere, baina gehien harritu zuena sumendi bat pare-parean izatea izan zen. Etxera bueltatzen ari zela soinu arraro bat entzun zuen. Geldirik geratu zen momento batez baina berriro ez zuenez entzun jarraitu zuen. 5 pausu eman eta berriro entzun zuen. Beraz, azpikeria hartuta soinua jarraitu zuen. Denbora tarte txiki baten ondoren badi handi-handi batera iritsi zen eta badiaren erdian... bale ikaragarri handi bat zegoen.

Markelek harrizkoa geratu zen, animalei beldurra zion baina 100 metrotara zeukan balea inoiz ikusi zuen gauzarik ederrena zen. Horregatik, berriro soinua entzutean gehiago hurbildu zen. 75 metro, 50 metro, 25 metro eta hor berriro balearen soinua. Hau indartsuena izan zen eta Markeli ia-ia gorra utzi zion. Tarte batean baleari begiratzen geratu zen. Denbora nahikoa zeraman eserita eta orduan, berandu egiten ari zitzaiola ikusita etxera bueltatzea eta hurrengo egunean janariarekin joatea erabaki zuen. Beraz, baleari agur esan eta etxera bueltatu zen.

Asteak eta asteak pasatzen ziren, eta egun guztietan, Markelek balearengana joaten zen, baina egun bakoitzean Markelek, balea gero eta argalagoa ikusten zuen. Beraz egun batean, balearengana joan aurretik, amonaren arraindegiraino joan zen eta izkutuan arrain batzuk lapurtu zituzkion, gero, balearengana joan zen eta eman zituzkion jan zezan. Egunero egiten zuen hori, eta ondorioz balea eta Markelek lagunak egin ziren. Baina egun batean arrainak hartzen zegoela amonak konturatu zen. Markeli balearenganaino jarraitu zion eta arrainak ematen ari zitzaiola, harengana hurbildu zen eta orduan, amona Markelen ondoan eseri zenean, Markelek barruan zeukan guztia atera zuen:

— Amona, asko sentitzen dut arrain hauek lapurtu izana, baina amarengatik oso kezkatuta nago eta bale honek berarengandik hurbil sentiarazten nau, berak egiten duen bezala entzuten didalako eta amarena bezain begirada finkoaz begiratzen didalako. Zurekin nago hemen denbora batez denok hobeto egon gaitzen, baina une honetan berarekin egon behar naizela sentitzen dut. —esan zion Markelek bere amonari ahots etenez barruan zeukan tristurarengatik.

Eta amonak, malkoak begietan zituela, erantzun zion:

— Markel, beti izango duzue etxe hau eta irla hau nahi duzuenean etortzeko. Beti izango zarete ongi etorriak. Gainera, nola sentitzen zaren kontatu didazu eta hori oso garrantzitsua da.

Markelen amonak ederki ulertzen zion bilobari zer gertatzen zitzaion. Urte batzuk lehenago bere alaba aitarekin, Markelen aitonarekin, antzeko egoera batean egon zelako. Ez zuen nahi bilobak segundu bat ere galtzerik amarengandik hurbi egon gabe. Horregatik, hurrengo egunean Markelekin aireportura joan zen eta besarkada indartsu eta sakon batekin, agurtu zuten elkar.

TXANTXANGORRI

DBH.1 EUSKERA